

HITZAURRE

Urte askotan barrena, urte gehiegitan barrena dudarik gabe, Euzkadi'ko apezpikuen esanak eta España'ko agintarienak gauza berbera izan dira. Apezpikuen bidez, Elizak ez ditu askotan bere iritziak eta ideiak predikatu, Madrille'ko agintarien leloak koldarki birresan baizik. Gauzak horrela, apezpikuak eliza-administratzaille hutsak izan dirala esatea bidezkoa da : gobernarien eskubi-aldean irribarrez topatu ditugu makiña bat aldiz, egoera ezin gordinkiago nabarmeneraziz.

Donostia'ko Bereziartua apezpikuak, hortara, azkenean « egia ofizialetik » urrundu dalarik, zalaparta ez da segittuan itzaldu. Noski !

Franco-zaleek ezin zuten horrelakorik siñistu : nola izan ote liteke beren interesa eta egia bi izatea, eta ez bat ? Zer dira « erokeria » horiek ? Bereziartua « burutik » egiña dagoela esanarazi dute, eta gaixotzat jo, U.R.S.S.'en politika-etsaiez esanarazten dan bezelaxe.

Guk abertzaleok, alderantziz, harrituta ikusi dugu egia apezpiku baten ahotik irtetzen : hogeita-hamabi urte hauetan ez genuen horrelakorik ikusi ! Franco'ren morroi gisa aurkitu izan ditugu eskuarki, eta oso gutxitan Ebanjelioaren apostolu.

Berandu baldin bada ere (eta askoren ustez beranduegi dala esan behar da) ; Elizaren aldaketa oso erdizka baizik gertatu ez bada ere (Iruña'n, Baiona'n, Gazteiz'en, ixilkeria ez da eten ; eta Bilbo'ko Gurrupide'k « anarkismo » deitu dio oraindik egia aitortzeari...) ; hasiera izuti bat besterik ez bada ere, Euzkadi'ko Eliza osoan harturik, txalotu egin behar da Donostia'ko apezpikuaren pausua.

Apaipek markatu duten bide garratzetik abiaturik, Bereziartua apezpikuak berak ere egia hautatu du gidari, eta Madrille'ko zampaketa-aitzekiak alde batera utzi ditu. Barne-zuzentasun haundia behar izan du hortarako ; eta bere jokabide ausartaren merezimenduaz ohartu gerala esan beharra dago : ez du agintarien eta kardinalen onespina billatu, egiaren eta zapaldutako herriaren errespetua baizik. Erosokeriari uko egin dio. Kristau agertu da, eta ez Franco-zale ; eskubideen gerizatzaille, eta ez indartsuen zerbitzari. Baldinba bide beretik aurrerago ere joko !

Legekeriatik at jarrita, gure arteko apaiz bertutetsu horiek bezelaxe, Egiaren helburura eraman dezakean bide bakarra hartu du Bereziartua apezpikuak.

Ba dute hor askok zer ikasirik.

Agian ikasiko ; eta ikasien arabera jokatu !

BRANKA'K.